

Bularreko minbizia 10etik 9tan sendatu liteke, tumorea garaiz harrapatuta

■ Estatistikek diotenez hamar emakumetik batek bularreko minbizia izango du ■ 'Kattalin' elkarteak dio minbizia oraindik tabua dela eta emakume askok nahiago izaten duela gaixotasuna gordean eduki.

KURSAALEAN bularreko minbiziari buruzko kongresua egiten ari da egunotan. Kongresuaren aurkezpenean zabalduak datuen arabera, bularreko minbizia 10etik 9tan sendatu liteke, tumorea garaiz harrapatzen bada. Zentzu horretan, gaur egun, 50 eta 64 urte bitarteko emakumei probak egiten zaizkie. Nafarroan edade tarte hori zabalagoa da eta 45-70 urte bitartean egiten dituzte. Komunitate Autonomoan ere badira *mamografiak* egiteko edadea zabaltzeko eskatzen dutenak. *Kattalin* elkarteak da bat, bularreko minbizia duten emakumei laguntzeko elkarteak. *Kattalin* elkarteak Hernaniko ordezkariak arabera, geroz eta edade tarte haundiagoan azaltzen da bularreko minbizia eta horregatik detekzio probak ere zabaldu egin behar dira. Estatistiken arabera, Bularreko minbizia da emakumeetan heriotza gehiena sortzen duen gaixotasuna.

Arrazoi garbirik ez
Bularreko minbizia zerk eta



Kattalin elkarteak Hernaniko kideak atzo Plaza Berrin egindako diru bilketan.

zergatik sortzen duen ez dago oraindik garbi. Hala ere, espezialisten ustez badira minbizi hori azaltzeko arrisku haundiagoa izan lezaketen taldeak: 40 urtetik gora dituzten emakumeak; familiar minbizi izandakoa dutenak; hormona aldaketak izan dituztenak eta abar.

Gordean pasa nahiago
Kattalin elkarteak ez daki Hernanin zehatz zenbat emakume dauden bularreko minbizia dutenak edo izan dutenak. Kronikari adierazi diotenez, oraindik minbizia tabua da eta emakume askok nahiago izaten du isilean pasa. Laguntza nahi dutenen-

tzat, berriz, *Kattalinek* bere esperientzia eta borondate osoa jartzen ditu horien zerbitzura. Aitortzen dutenez, hasierako kolpea izaten da gogorra eta gero pixkanaka gauza hobetzen joaten da normalean. *Kattalin* elkartearekin harremanetan jartzeko: 943-482604. □

ZINEA BITERIN

'Stuart Little II' eta 'Operación Triunfo' asteburuko pelikulak

BI pelikula botako dituzte asteburuan Hernanin. Umeentzat *Stuart Little II*, larunbat eta igandean 17:00etan. Helduentzat *Operación Triunfo* botako dute, larunbatean 19:30 eta 22:30etan eta igandean 19:30etan. □

ANTZERKI ZIKLOA

'A cuestras con Murphy' antzeleanak itxiko du gaur Antzerki Zikloa

GAUR bukatuko da Antzerki Zikloa *A cuestras con Murphy* lanarekin. Bederatzi lagun bizi-tza gogorra kontatzen du Vaiven producciones taldearen antzelean horrek. Arratsaldeko 20:00etan, Biterin. Prezioa: 3,75 euro. □

Euskal dantza ikastaroa larunbatetan Biterin

EUSKAL dantzak ikasi nahi dituenak larunbatero du aukera Biterin, eguerdiko 12:00etan. Fandangoa, arin-arina, mutil dantza, mutxikoak eta abar erakutsiko dituzte. San Joan Konpartsak antolatzen du euskal dantza ikastaroa, baina, ikastaroetan parte hartzen duenak ez du zertan konpartsan parte hartu beharrik. Ikastaroa debalde da. □

OSIÑAGA AUZOA

Haurrentzako jaiak bihar Arriatsu eskolan

Haurrentzako herri kirolak eta txokolatada antolatu ditu Osiñagako auzo elkarteak, biharko. Festa arratsaldeko 16:30etan hasiko da. □

Udal Gobernuak bilera egingo du astelehenean 2003ko Zerga, Tasa eta Prezio publikoak eztabaidatzeko

■ Udal Gobernuak ari da 2003ko aurrekontua moldatzen eta prozesu horren barruan dijoa asteleheneko bilera ■ Bilera arratsaldeko 20:00etan egingo da, Biteri kultur etxean

DATORREN urteko Udal aurrekontuak erabakitze prozesua martxan da. Aurrekontuetako sarreretakoz zati bat Zerga, Tasa eta Prezio munitzapaletatik dator, eta erabakitze Ordenantzak onartzea egokitzen da orain.

Udal Gobernuak osatu du bere proposamena eta orain herriko elkarte eta talde aurkeztu nahi die. Horretarako, datorren astelehenerako bilera konbokatuko du Biteri kultur etxean, arratsaldeko 20:00etan.

Zerga, Tasa eta Prezio publikoen proposamena urriaren 11ean aurkeztu zen Hazienda Batzordean, eta 23ko Hazienda Batzordean hitz egingo da ostera. Ezeren aldaketarik ez dela, urriaren azkenean Plenora joango da.

Udal Gobernuak 2003ko aurrekontuak osatzeko prozesuan bilera gehiago ere egingo direla adierazi du, eta herritar guztiak gonbidatu ditu prozesu horretan parte hartu eta proposamenak egingo dira. □

Hernaniko Kronika internetean irakurtzen duzuenok konturatuko zineten azken egunotan gure web orria ez dagoela funtzionamentuan. Aldaketa teknikoak medio egun batzuetan ez da internetean Kronikarik izango. Barka eragozpenak.

ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

AMAIA
ARRANTZAK
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel. 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 HERNANI

EGUZKI
PERFUMERIA
Gure dendan, behar duzuna daukagu.
- Perfumeria
- Opariak
- Boutique
- Edertze gela
- Solariuma
EGUZKI Zure denda
EGUZKI PERFUMERIA
Kale nagusia 45 - Tel. 943 551 333 - HERNANI

PUTZUETA
HARATEGIA - URDAITEGIA
Kardaberaz 39
Tel. 943 55 27 87
20120 HERNANI



Hernaniko boleibol jokalaria.

BOLEIBOLA

Ligako estreinaldia etxean bihar

■ Hernanik Laredoren kontra jokatuko du, 17:30etan.

EHU-UPV Hernanik bihar du Ligako lehenengo partidua etxean. Hernaniarrek Kantabriako Laredoren kontra dute eta bihar saiatuko dira denboraldiko aurreneko garaipena lortzen. Eusebio Lizarazu delegatuak adierazi duenez, Laredo oso talde gogorra da: azken urteetan goien dabilen taldea da eta esperientzia handiko jokalaririk ditu Laredok.

Alfred Cerdan entrenatzaileak

leak jokalaria guztiak jokatze-ko pronto ditu eta Hernani beldurak ahaztuta aterako da. Boleibol taldeak partidua ikustera animatu ditu zaletuak eta ziur dago bat baino gehiago harritu egingo dela kirol horren ikusgarritasunarekin. Bestalde, Boleibol elkarteak adierazi du behin maila horretara ezker lan handia egin behar dela eta herritarren babesa eskatu du. □

ESKOLA KIROLA BIHAR HASIKO DA



Elizatxo eta Inmaculadako umeak futbol partidua jokatu aurretik.

Umeen erdiak eskola kirola egiten dute

■ Asteburu honetan hasiko da aurtengo denboraldia ■ Inmaculada, Elizatxo, Langile, Urumea eta Txirritako umeak ibiliko dira ■ Futbola da kirol nagusia.

DIPUTAZIOAK bultzatuko programa baten barruan, duela 7 urte Eskola Kirola jarri zen martxan Hernanin, Udala eta klubak laguntzarekin. Eskola Kirolak arrakasta handia izan du Hernanin eta aurten ere eskola umeen erdiak egingo du kirolen bat. Probintzian, berriz, hirutik bat ibiltzen da.

Parte hartu eta kirol bat baino gehiago egin

Eskola Kirolaren helburu nagusia da umearen kirol garapena hezkuntzan sartzea. Horretarako bi aspektu bultzatzen dira: ahalik eta ume gehienek egitea kirola, eta aurreneko bi urteetan, behintzat, kirol bat baino gehiago egitea. Gazte-

txoenek, benjaminen, ia 10 kirol egingo dituzte urte osoan: atletismoa, pelota, futbola, igeri, mendia, boleibola, errugbia, herri kirolak eta abar. Alebinen, ostera, kirol batzuk berak aukeratzen dituzte eta besteak programak markatzen ditu.


Infantilek eta kadeteek zuzenean klubekin egiten dute lan eta ia erabat berak aukeratutako kirolak egiten dituzte. Eskola Kirolaren prozesua beraz, ezagutza zabaletik hasi eta pixkana umeak gustoko kirola egitera dijoa.

Futbola eta gimnasia

Eskola kirol guztiak hartuta, ume gehienek futbola egiten dute. Hortik aurrera, gehienak

gimnasia erritmikoan eta pelotan ibiliko dira. Gimnasiarena aipatzeko da neska gehienek hori egiten dutelako. Kirol gehienetan, benjaminetan neska eta mutilak paretsu dabil-tza, baina, hortik aurrera dezentez mutil gehiago dabil, eta neska gehienek gimnasia egiten dute.

Eskola Kirolak arrakasta handia du, baina, baditu bere herrenak ere. Alebinetatik aurrera, umeak klubetan jokatzen hasten dira. Kontua da, ordea, klubetan beti ez dagoela denentzat tokirik edo pausoa handia dela, eta ume askok utzi egiten dute. Kirol Patronatua hori konpontzeko formula bila dabil. □



Ekaitz Bergara bezero bati hankean tatuajea egiten.

EKAITZ BERGARA -TATUAJE EGILEA

“Hemen oraindik nahiko tatuaje gutxi egiten dira”

■ Tatuajeak egin eta piercing-ak jartzeko ‘Ilbetea’ denda berria jarri du Orkolagan.

EKAITZ Bergarak Bartzelonan ikasi du tatuajeak egin eta piercing-ak jartzen. Orain 4 aste, denda berria ireki zuen Orkolagan eta dagoeneko hasi da lehenengo tatuajeak egin eta Piercingak jartzen. Dendan hasi aurretik etxean-eta egiten omen zituen, baina, orain horretara dedikatzeak asmoa du. Jendeak denetatik eskatu lezake, baina, oso gauza arrarorik egitea ez omen diote eskatu oraindik.

Hemen nahiko gutxi

Bergarak dionez Bartzelona

aldean eta beste zenbait herrialdetan tatuaje asko egiten da, baina, hemen oraindik nahiko gutxi. Normalean modak beranduago etortzen dira gurera eta badirudi tatuajeen joerak ere gora egingo duela. Marrazkiak norberak eraman litzake edo bertan ere baditu molde batzuk eta nahi adina koloretan egin litezke. Bergararen hitzetan erreminta onak izatea beharrezkoa da egiten den zauria garbia izateko eta gero lehenbailehen sendatzeko. Horrez gain garbitasunak ere garrantzia berezia duela dio. □

HERIOTZAK

Rosa Arrozpide Galardi

Ostegunean hil zen 92 urte zituela
Hileta elizkizunak gaur, OSTIRALA, arratsaldeko zazpietan Juan Bataiatzailea parrokian.

M^a Luisa Zubillaga Zubillaga

Ostegunean hil zen 78 urte zituela
Hileta elizkizunak gaur, OSTIRALA, arratsaldeko zazpietan Juan Bataiatzailea parrokian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 006666
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

☛ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
☛ Gaez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

45 URTE EZKONDU ZIRELA

(1957-10-18 / 2002-10-18)

Pedro eta Juani: ezkondu zineteneko 45garren urteurrena dela eta, senideok zorionak eman nahi dizkizuegu eta bihotz bihotzez, elkarrekin urte askoan jarrai dezazuela opa dizuegu.

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai, Kardaberaz kalean. Pana parkerako bistak, 2 gela, sala, sukalde, 2 komun eta apartatzeko plaza erreserbatua. ☎ 646 47 02 58

Klase partikularrak emango nituzke: elektronika (digitala eta analogikoa) elektrizitatea, Neumatika, Hidraulika... ☎ 646 83 27 52

Ford Transit furgoneta daukat salgai. Furgoi luzea da, aire egokitua eta airbag-arekin. Matrikula SS-BB. Prezioa 8.000 euro. ☎ 655 74 92 54

Opel Corsa 1.2 daukat salgai. SS-AL matrikula du eta 110.000 km dauzka ☎ 943 55 72 06

ESKOLA KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

Pelota				Futbol sala		
Benjaminak	Langile B-Langile C	Kiroldegia	Gaur 09:15	Benjaminak	Langile A-Elizatxo B	Kiroldegia
Benjaminak	Langile A-Urumea	Kiroldegia	Gaur 10:10	Benjaminak	Elizatxo A-Inmaculada	Kiroldegia
Benjaminak	Elizatxo A-Elizatxo B	Kiroldegia	Gaur 11:05	Benjaminak	Urumea-Langile B	Kiroldegia
Alebinak	Elizatxo A-Langile A	Kiroldegia	Gaur 16:15	Infantilak	Herri Ametsa-Langile	Pasaia
Alebinak	Urumea A-Txirrita	Kiroldegia	Gaur 16:30	Saskibaloia		
Alebinak	Urumea B-Langile B	Kiroldegia	Gaur 16:45	Alebin neskak	Urumea-Cat. Erauso	Kiroldegia
Alebinak	Elizatxo B-Urumea D	Kiroldegia	Gaur 17:00	Alebin neskak	Langile-Belen A	Kiroldegia
Alebinak	Urumea E-Langile D	Kiroldegia	Gaur 17:15	Alebin mutilak	Elizatxo A-Langile A	Kiroldegia
				Alebin mutilak	Urumea A-Inmaculada	Kiroldegia
				Alebin mutilak	Elizatxo B-Urumea B	Kiroldegia